terma naturalei bisita eginez, sumendipetik datorren ur beroak on egingo digulakoan. Inguruan, bertako amuarraingoxoa afaldu eta etxerako bidea egin dugu gau ilunean. Eguerdi aldera abiatu gara Jorgerekin Cotopaxiren magalean dagoen aterpetxera; autoa utzi dugun lekutik ordu erdi pasatxora dago eta gure harridurarako bertan

ez dugu mendizale askorik topatu; hiru bat sokadek bakarrik egingo dugu gora goizeko ordu batean.

Teilatuaren babesa utzi eta ilargiaren arrastorik ez, zeru izartsua izango dugu lagun; kopeta-argia piztu eta ordu erdi inguruz egin dugu gora kranpoiak jantzi bitartean. Elurra egoera ezin hobean aurkitu dugu eta



Cotopaxiren gailurrean, kraterra atzean dugula

hotza ere jasagarria. Erritmo oso onean egin dugu aurrera eta aurreikusitakoa baina azkarrago iristea komeni ez zaigunez, atsedean hartu dugu izotzezko koba baten babesean. Erabateko isiltasunean goaz pauso bakoitzaren laztana sentituz eta egunsentiarekin batera zapaldu dugu gailur zuri biluzia. Ortzi-mugaren gorri koloreak zeharo liluratuta utzi gaitu, urrutian Sangay sumendia laba kanporatzen eta tximiniatik errautsa dariola atzeman baitugu. Hatsa berreskuratu eta kraterraren ertzean geratu gara, aldamenean dugun zulo sakon elurtuari so. Kono perfektu honen gainean egotea zinez da izugarria eta ametsetako inguruneak eskainitako opari eder honek erabat biziberritu gaitu.

**Sangay sumendia
laba kanporatzen eta
tximiniatik errautsa
dariola atzeman dugu**

Beharokan ez dugu presarik, baina eguzkiak gibeletik gogor jotzen duenez, kanal bat hautatu dugu jaisteko eta pauso arinez joan gara aterpeko gosariaren bila. Otordua ere, oraindik prestatzeke dagoenez, batzuk ohean eta besteak sukaldeko aulki gainean etzan gara bide-zama guztia alboratuz. Merezitako deskantsua izango dugu hurrengo egunetan begiz jota dugun Chimborazo sumendiari aurre egiteko. Egia da, Chimborazo aipatzen dugun bakoitzean ez dugula nahi genukeen berririk jasotzen; azken sasoiaren mendizale dezente hil baita bertan. Elur jauzien arriskuak eta amildegi ertzeko xendak tentuz jokatzeari eskatzen dute. Hala ere, aurreikuspenak itxaropentsuak dira eta saiakera bat egitea erabaki dugu. Honetarako, gertuko jatetxe batean *cuy* platerkada bat jatea dela onena iritzi dugu. Inguru honetako ohiko jaki hau atzema eta guzti aurkeztu digute, eta nahiz eta itxura erakargarriegirik ez duen, haragi xamur honek erabat ase gaitu.

Azeria



Orain bai, iritsi da eguna, lau bat orduko auto bidaia egin ostean iritsi gara Chimborazoko aterpe aldameneko gunera. Bi aterpe daude bertan, baina ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik itxirik daude. Honenbestez, goi-kanpalekura joateko hautua egin dugu. Hasierako maldan elurraren arrastorik ez, baina azkar batean zapaldu behar izan dugu geruza zuria. Bost mila hirurehun eta berrogeita hamar metroan dagoen goi-kanpalekura iristerako, elurra besterik ez dugu aurkitu. Atsedeneku zoragarria da; lau bat domok osatzen dute kanpalekua eta bertan egin dugu otordua arratsaldeko bostak aldera. Eguna lainotuta dago, baina tarteka ostar-teek gauean igaro beharko dugun horma izugarria erakusten digute. Afaltzen ari garela elur malutak hasi dira eta lau bat zentimetro pilatu dira aurrez zegoen izararen gainean; kezkatzeko inongo arrazoirik ez. Iluntzerako zaku barnean sartu gara ordutxo batzuk atsedean hartzearen, baina parez-pare dugun erronkak ez digu behar bezala begirik biltzen utzi.

Gauerdiko iratzargailuak jo aurretik ireki ditugu begiak eta ordu batak ingururako martxan jarri gara. Oraingoan, hasieratik erabili behar izan ditugu kranpoiak aurrera egiteko eta lehen tartea amildegi ertz estu batetik egin dugu, pausu bakoitza ondo neurtuz; ezkerrean harria zein izotza, eskuinean, aldiz, sekulako zuloa. Eroso egin dugu aitzinera eta, ostean, piolet zorrotza ondo sartu beharreko metro batzuetako hormari aurre egin behar izan diogu. Igoerak ez du etenik eta pausarik gabeko aldapa dugu esperoan. Zeruan ia ikusten ez den ilargi ñimiñoak ez du ingurua argitzen eta esne-bidea da gaurko ilunari distira ematen dion altxor bakarra. Aurreraxea go doazen kopeta-argiak noizbehinka sumatu arren, hauei muzin egin eta gure erritmoan jarraitu dugu.

Esan bezala, ortzia zoragarri dago eta aldapa ez da makala; aurrera egitea besterik ez dugu eta gora egin ahala gure nekea ere areagotu egin da. Horma honek ez du amaierarik eta sigi-saga batean goaz igoeraren astuntasuna sentituz; altueraren eragina nabaria da eta hasieratik gogor jotzen duten haize ufa-dek ez dute sobera laguntzen.



Mendirako prest

Egusentiko lehen argi ikaratiekin batera iritsi gara aurre gailurrera; tontor nagusitik 30 metro ziztrinetara besterik ez. Hala ere, distantzia xume hau leize handi bihurtzen da sarritan eta mendizale askok hementxe hartzen du itzulerarako bidea. Une batez, 6263 metroko gailurra ihesean sumatu dugu, baina zenbait metroko jaitziera leuna egin ondoren, gogor ekin diogu azken pendizari. Esfortzuak eragindako pauso baldarrez iritsi gara gailurrera eta orain arteko zeropeko hamar gradutik beherako tenperaturak eta etenik gabeko haize harroak aho ingurua erabat izoztuta utzi didate eta nekez ahoska dezaket. Hala ere, hala moduzko irribarreari eusten diogu malkoek masailetatik behera egiten duten bitartean. Begirada lausotuak urruneko sumendi elurtuetan jarri du ardatza; ikusgarria da nola nabarmentzen diren laino geruzaren gainetik erabat tinko.

Ostertzetik agertzen ari den eguzkia ere inoiz eta inon baino gertuago dugun arren, ez du behar adina berotzen eta jaitzierako ahaleginean bilatu behar izan dugu epeltasuna. Kostata baina, arnasa bareak lagunduta zapaldu dugu berriro ere goi-kanpalekuko aterpe desiratua. Hasperen egin eta

sukaldeko eltzeari darion usain goxoaren bila abiatu gara; ez dago hau bezalakorik! Edari bero eta platerkada on batek arima zartatuena ere senda dezake.


Bidaiaren hondarrean begi-bistakoa da gure zoriona, herrialde basati honetara informazio gutxirekin, baina gogo izugarri iritsi ondoren, aste-parean itsas-mailatik urrutira dauden altuera hauetan gozatzea lortu dugu, eta nola gainera, tarteka pentxaezin genituen sumendien tontorrek zapalduz. Mendian aurkitu ditugu ziurgabetasuna eta bakea, nekea eta indarra, eta honek ez du parekorik! Eguzkia egunero sortzen den moduan, guk ere gailur ezberdinen xerka jarraituko dugu. Mendi eta bizitza on!

IBILBIDEEN TRACK-AK:

COTOPAXI ↘



CHIMBORAZO ↘





INDIAKO HIMALAIAK

GURPILEKIN BIDAIARI

Abentura da heriotzari denbora kentzeko modu bakarra

Paul-Emile Victor, esploratzailea

TESTU ETA ARGAZKIAK



Eneko Redondo Ikazuriaga
(Gernika-Lumo, 1972)

Mendiko bizikletarekin, eskalatzen edo oinez mendian gora naturaz gozatzeari maite du; horrez gain, judoa praktikatzen du 4 urte zituenetik. Ahal duen bakoitzean bidaiatzera irreteten da, bidaiari horietako gehienak bizikleta gainean eta era autonomoan egin ohi dituelarik.



Lamayuru herri tibetarra

Hantxe ditut hirurak, txandaka begietara eta mahai gainera begira, zorroztasunez. 40 gradu inguru, izerditan blai eta nire gailu satelitala filma beldurgarri honen protagonista bezala, mahai gainean. Ez dakit zenbat aldiz esan diedan GPS moduan baino ez dudala erabiltzen. Lau orduz behin eta berriro galdera berdinei erantzun berberak ematen, eta halere, ez, ez dira asetzen morroi hauek! Ez dut imajinatu ere egin nahi zer izango den Indiako kartzela batean hiru urtez egotea, hori baita beraien hitzetan egin dudan legearen aurkako ekintzak agintzen duen zigorra.

WAGAH (INDIA)

Pakistan eta India arteko mugan nago, indiar postu militarren egoitzan, eta atxilotuta nagoela esaten didate behin

eta berriro. Pakistan eta India banatu zirenean, Wagah herria erdibitu zuten eta hantxe dago, pastela balitz eran, zatituta. Zaila egiten zait ulertzea nola bana daitezkeen auzo bereko etxeak alde batera eta bestera honek dakarren familia haurtuta eta banaketarekin.

Halere, herri honetako momenturik famatuena arratsaldeko bostetan ematen da. Kriston komeria antzezten dute mugako burdinazko ateak itxi eta alde bakoitzean, aurrez aurre, alde bakoitzeko soldaduek sekulako irainak esaten dizkietenean elkarri, zarataka eta builaka. Pakistan aldean apenas egoten da inor emanaldia ikusten; Indiakoan, berriz, harmailak. Honekin zenbat gorrotatzen diren antzezten dute egunero, elkarri eragindako kalte eta hildakoak nahikoa adierazpen ez balira bezala. Ez legoke gaizki munduko istiluek eta herrien arteko arazoak antzerki bitartez konponduko balira. Oraingo, tamalez, eta ikusitakoak ikusita, ez du ematen lehen aukera denik.

Birritan pentsatu gabe sinatu dut ez daramadala nirekin GPS satelitalik, zer egingo dut ba? Zaborretara bota? Hirugarren aldiz nire bizikletako poltsa guztiak X izpidun tramankulutik pasatzerakoan lehegailu nuklearra aurkitu izango balute bezala erreazionatzen dute, alajaina!

Amritsar, sij erlijioaren epizentroa da eta bertan dago Urrezko Tenplua deritzon santutegia

Sekulako oihuak! Zer demonio gertatzen da ba? Banekien debekatuta zegoela mezuen bitartez komunikatzeko balio duen nire tresna hau. Segituan espioia banintz bezala tratatzen naute, eta egoera nahikoa konplikatua egongo ez eta, dena okertu da Kaxmirrera joateko asmoa dudala esan diedan. Militarrei erantzunak ematerakoan nire tripek komune-

Khalsi herriko gompan





Damkhar herriko biztanleak

ra joateko gomendio serio bat eman didate, literala. Badaramat aste bete bakteriak bizilagun ditudala eta zeharo ahulduta sentitzen naiz, baina txoropito hauek ez daude txantxetarako eta nik ez dakit nondik atera behar ditudan honi guztiari aurre egiteko indarrak. Azkenean, gailuaren bateria bukatu da. Denok gaude neka neka eginda eta azkenean, libre utzi naute! Oraindik kilometro dezente ditut Amritsarrera heltzeko eta eguzkiaren azken izpiak agur esatear daude.

AMRITSAR (PUNJAB)

Logela alokatzeko asmoz, hainbat lekutan galdegin dut. Garestiak iruditzen zaizkit eskainitakoak eta, azkenik, nahi nuena baino sos gehiago jarri ditut mahai gainean aire egoakitua duen logela batengatik. Egun amaigabea izan da eta ez daukat ezertarako adorerik. Dutzatu, zerbait jan eta, indiar militarren amesgaiztoak lagun, loak hartzen ahalegindu naiz.

Amritsar, sij erlijioaren epizentroa da. Bertan dago Golden Temple (Urrezko Tenplua) deritzon santutegia eta gaur egun Taj Mahal (Agrako tenplu famatua) berak baino bisita gehiago jasotzen ditu, ia 100.000 lagun astero, gehiengo zabala indioak izanik. Amritsarreko historian zehar hainbat guda eta

Amritsarren dagoen Golden Temple (Urrezko Tenplua)



sarraski izan dira. Mongol inperioak zuen bere kontrola 1650 urte inguru arte, gero afganiarrak, azkenik indioek berreskuratu zuten arte; eta horrela ibili dira historian zehar gaur egun ezagutzen den egoera bilakatu arte. 1947ko abuztuaren 14an gauzatu zen banaketa zoro hau (Pakistan eta India) milioika pertsonaren migrazioa eraginez.

Goiz esnatu eta, beroak eta trafiko zoroak indarra hartu orduko irten naiz bizikletarekin, Golden Temple edo Urrezko Tenplua ikusteko helburuz. 40 graduko beroak bekokian kolpea jo orduko, autotxokeak bezala kaleetan zehar abiatu naiz. Denok batera atera garela dirudi. Buruan ezinbestekoa den



Leh eta Manali herrien arteko bide galduetan

zapi gorria jantzita, oinutsik nago Urrezko Tenpluaren aurrean. Eguna eman dut bazterrak arakatzen eta hainbat bisitarirekin hitz egiten. Eguzkia kolore gorritz jantzi da eta milaka pertsonak jarraitzen dute amaigabeko ilaran. Denek nahi dute beraien erlijioak agintzen dien errituala gauzatu. Ikuskizun honen aurrean, berehala ohartu naiz nire espiritualitate eskasaz.

**Une oro, pedalak ematerakoan,
niri biziko azken uneak izan
daitezkeela sentitzen dut**

Amritsar eta sij mundua atzean utzita, iparraldera jo dut, Kaxmir aldera. Indiako bideetako hautsak, aldapa eta trafikotraketsak une oro erne egotea exijitzen dit. Kamioi, rickshaw, auto eta motorrak edonondik edonora doaz, eta gutxi izango balitz, une oro zoramen guzti honen erdian txakurrak, tximinoak eta behiak daude! Imajinagaitza da, orduak joan eta orduak etorri, txirrundulari bat anabasa honetan murgilduta. Une oro, pedalak ematerakoan, niri biziko azken uneak izan daitezkeela sentitzen dut, baina modu misteriotsu eta harrigarri batean denok lortzen dugu elkar saihestea, estropezu egin gabe. Ezaguna da behiak animalia sakratuak



Khurdun La mendi igarobidea

direla Indian, eta gobernuak emandako pribilegioei kasu eginez, hauek ez dute inolako lizentzia eskatu behar beraien pekorotz plastoak edonon uzteko. Saihestu beharreko beste oztopo bat gehiago! Hau da hau!

KAXMIR

Mendi dotorez inguraturik dagoen Srinagar herrira "bizirik" heldu naiz. Musulmana den herrialde batetik (Pakistan) Indiako lurretan dagoen beste batera igaro naiz. Laku ederrak ditu bere ondoan eta larreetako freskotasuna airean nabari

dut. Warm Showers bizikleteroen abegia jasotzen duen plataformari esker, bertako familia baten etxean nago. Gustura hartu naute eta, beti bezala, ni ere eroso sentitzen naiz musulmanen artean. Bost egun egin ditut beraiekin, nire osasuna berreskuratu eta mendietarantz joan baino lehena-go atsedean hartzeko. Ahmed, familiako mutil gazteenarekin eman ditut ia egun guztiak, inguruak ikusten eta beraren etorkizunari buruz hitz egiten. Europako herrialdeetan lana aurkitu eta familia bat eraikitzeko beste diru irabaztea amesten du. Ez du berantzako etorkizunik ikusten Kaxmiren, eta, Indiak eta Pakistanek beraien artean duten gatazka dela eta,



Amritsar eta Punjabeko sij etniako laguna

didate. Bihotza eta beste gauzatxo bi eztarriaren inguruan nabaritu ditut. Jarraian dena batu eta Sonamarg herrira joateko agindu didate, bertako logela batean gaua igarotzeko.

Bidea, ia guztia lurrezkoa da, aldapa hasten denean batik bat

Egun argitsu batekin abiatu naiz gogotsu Zoji-La mendi igarobideari aurre egiteko prest. Bidea, ia guztia lurrezkoa da, aldapa hasten denean batik bat. Bizikleteroek, bidaiatzeko eta

Khardun La igarobidea



zeharo nekatuta daudela esaten dit behin eta berriro. 1947an, bi estatuen arteko tentsioak hasi zirenetik ez dirudi egoera lazgarri hau konponduko duen elkarren arteko akordiorik egongo denik. Munduko lekurik militarizatuena dela esaten dute azkeneko datuek.

Indarberrituta irten naiz Srinagarretik eta erreka eta mendietako edertasunean murgilduta noa. Ahazten ez diren egun horietako bat. Dena primeran doa akanpatzeko momentua heldu arte. Kaxmir osoan 100.000 militar baino gehiago dauka, pakistandarrak kontatu gabe. Horietako batzuk, kanpin denda muntatzen amaitzear nagoela sekulako sustoa eman

urteetan zehar eskarmentu handia eskuratzen dute, ia denetarikoko egoerak bizi behar izaten dituzte eta. Baina beti dago ezustekoentzako tartea eta hauek dira egun bakoitza bestetik bereizten dutenak. Egoera batzuetarako prestatuta nagoela esan dezaket, aldiz, beste batzuetan ez dut jakiten nondik nora jo eta badira gutxi batzuk, aurrez aurre estralurtar batekin aurkituko banintz bezala sentiarazten nautenak. Azken hau da nire sentsazioa 112 kamioi militar eta beste horrenbeste militar estiloko jeepak bata bestearen atzean kontatzen ditudanean. Zeharo harrituta egin dut aurrera hautsezko "bonba nuklearra" desagertzten denean. Imajinagaitza da nolako hauts geruza itsasten zaidan gorputzean eta bizikletan, eta nolako komediak egin beharko ditudan gero hau guztia kentzeko.

Eguneko azken orduetan Kargil herrira heldu eta logela xume bat bilatuz kontsumitu ditut nire azken energiak. Nekagarria benetan, baina badakit horren ostean, hurrengo egunerako erregaia gorputzari emateko eta itsatsita dudana hautsa kentzeko momentu gozoa heltzen dela. Logelaren prezioa ia erabakita dagoen momentuan... Eneko! Nire izena entzun dut nonbaiten. Hugo eta Bego dira, Donostiako txirrindulari bi.

Bazekiten Pamir eta Karakorum mendiak zeharkatzetik nentorrela, Tajikistan, Kirgistan, Txina eta Paskistandik pasatuz. Beraiek hegazkinez heldu dira Srinagarrera eta Himalaietan zehar nire ibilbidearen zati bat partekatzeko asmoa dute. Ezustean, lagun artean aurkitzea oso atsegina da eta bizikleteroen artean dagoen elkartasuna berehala loratzen da, daukagun informazioa elkar trukatzeko eta pedal kontuen inguruko abenturak kontatzean.

LADAKH

Kargil eta Leh artean, mundu musulmana atzean utzi eta tibetar kulturaren barna bete betean sartu gara Lamayuru, Tikse eta bestelako herri maitagarriak zeharkatuz. Ladakh eremua. A ze plazerra mendizarren artetik doazen bideetan galtzea! Ez dakit, tibetar biztanleek ematen duten bakea den ala bertako aldapa amaigabeek ematen duten neke gozoa, baina

Likir herriko gomparako bidea



arima, gorputz eta burmuina garbi eta lasai sentitzen ditut. Bakean sentitzen naiz. Tiksen dagoen Gompa edo monasterioan hartu gaituzte sos gutxi batzuegatik eta nire kasuan inbidia puntu batekin begiratzen dut bertakoek duten bizimodu sinplea, gure gizartean ezagutzen dugunarekin konparatzean batez ere. Bizitako beste egoera askotan bezala, agian bada-goela hauengandik zer ikasi pentsa arazten didate.

**Mundu musulmana atzean utzi
eta tibetar kulturaren barna
bete betean sartu gara**



Namika La mendi igarobidea jaisterakoan

Indiako Himalaiako errepide birrinduek 4000 metroko mendi igarobideetatik garamatzate. Zerua eta hodeiak ezberdinak dira altuera hauetan eta egun berean eguzkia, haizea eta txingorra jasan ditugu. Halako batean norbaitek margotutako kuadro bat balitz modura, paisaia irreal bat dugu begi aurrean. Hodei beltzak, euria alde batean, eguzkia bestean eta dena lotzen duen ostadar erraldoi bat. Momentu horretan ez dut erreakzionatu, zeharo txundituta sentitu naiz, aurrean dudan edertasunaz eta momentu hura bizitzeko dudan zortean pentsatu gabe. Hantxe, liluratuta, geldi eta irudi surrealista hura benetakoa dela konturatzean argazki kameraren txanda da.

Lagun bizikleteroekin Leh herrian





Namika La mendi igarobidea

Ruben Elejalde, Patagoniako herritxo batean ezagutu nuen. Orduan Tasio nire lagun minarekin nindoan Usuiara heltzeko asmoz. Ruben zakutoz jantzita dagoen bizikleta maitalea da, hamaikatxo bidaia egindakoa eta Lehra dator, nirekin elkartu eta ia hilabete elkarrekin pedalei eragiteko asmoz.

SPITI ETA KINAUR

Spiti eta Kinaur haranetan zehar gabiltza, Tabo, Kibber, Moorang edo Kaza herrixketako tibetar kulturaren murgilduta. Mendien arteko lurrezko bide nekagarriak errazago gainditzeko ditugu lagun arteko giro ederrak lagunduta. Konbinazio

ederra izanda eta, taldean joateak lagundu arren, errealitatea gogorra da. Altuera eta bide malkartsuen aurkako borroka norberak egin behar du eta bakoitzak bere erritmoa hartzen du, begirada zerbaitetan finkatu eta pedalei ekinez. Eguna bukatzerakoan dator handitasun horren aurrean zer nolako txikiak garen konturatzeko momentua. Lur eremu horietan eguneko argitasunak laster egiten du alde eta behin eguzkia sartzerakoan kolpera jaisten dira graduak. Izarrek laster hartzen diote erreleboa eguzkiari eta lozakura sartu aurretik, inoiz baino gertuago somatzen ditut Mikel Laboaren izarren hautsak. Momentu berezia benetan.

Indiako kastarik baxuenek egiten dituzte lan hauek, gizon, emakume eta umeak, lurrian belauniko hautsez itota

Thikseyko Gompa



Inguru horietan isolatuta dauden herrietan baino ez da oinezkorik ikusten. Baina bideetan agertzen diren neurri ezberdineko harri tontorrek halabarrez salatzen dute norbaiten existentzia. Bide ondoan daude harriak txikitzen noizbehinka pasatzen den kamioiren bati sos gutxi batzuen truke saltzeko. Indiako kastarik baxuenek egiten dituzte lan hauek, gizon, emakume eta umeak, lurrian belauniko hautsez itota. Bihotza hunkituta ikusten ditut beraien bizi baldintzak. Plastikoko beltza dute teilatu gisa eta lurrezko esterila zoruan. Lau

arto eta gari garauez egindako txapatiak eskaini dizkidate. Hau da mundu krudela!

Badira hilabete batzuk 3000 metrotik gorako altueran nabilela, eta jadanik kilo batzuk ere galdu ditut bidean. Horretaz aparte, inoiz baino larru kolore ilunagoa izatea paraje hauetako eguzkiaren astinduaren erakusgarri ona da. Amak ikusiko banindu, "hau da itxura eskasa daukazuna" esango luke. Nire gorputzari so egitean, Maurizia eta Leon trikitilari famatuak datozkit burura behin eta berriro. Nire azalak Mauriziaren panderoa bezalako larru lehor eta kolpatua ematen du eta, nire birrikak, Leonen trikitixaren hauspoa bezain besteko lanetan dabilta. Ondo elikatzea eta ondo hidratatuta egotearen garrantzia nabaria da aldapan gora edo egunaren azken izpiekin batera guztiz hustuta aurkitzen naizenean. 112 marka-tuz gero, mugikorrean ez dizu inork erantzungo hemen!

HIMACHAL PRADESH

Mendietatik jaisten garen heinean, herrixketan bizitasun gehiago ikusten dugu. Gauetan ere ez du horrenbesteko hontzik egiten eta montzoiaren lehenengo tantak sentitu ditugu. Egunak pasatu ahala, etxerako hegaldia dela eta, gero eta gehiago larritu da Ruben. Hugo eta Bego atzean utzi ditugu horrexegatik eta Shimlara heldu gara, Indiako Himalaiaren magalean dagoen herria. Hiri txiki honek germaniar estiloko eraikinak ditu eta honek guztiz jokoan kanpo utzi gaitu.. Ez du ematen Indian gaudenik.

Tibetarren bakeak zoramenari eman dio paso beste behin ere, Himachal Pradesh deituriko probintzian

Mendietako altuera galtzearekin batera, magia ere desagertzen hasi da eta tibetarren bakeak zoramenari eman dio paso beste behin ere, Himachal Pradesh deituriko probintzian gaude. Bide lasaiak bukatu dira eta errepide hauetan barna bizia galtzeko arriskua sentitu dugu behin baino gehiagotan. Ruben estresak jota dago, justu libratu baita bere burua kamioi baten azpian ikusteaz. Ni ere zeharo beldurtuta murgildu naiz trafikoan, trailer, autobus, kamioi, kotxe, rikshaw, moto, txakur, behi eta tximinoz osaturiko anabasan. Eta gu, txirringulari ero eta tentel bi, txokolate guzti honen erdian.

Ruben laguna agurtu eta gero, Chandigarren kanpo aldean dagoen hostel lasai batean hartu dut ostatu, India eta Nepaleko jaki ezberdinak dastatuz. Nire plana Nepalera doan bidea jarraitu eta Kathmandu hirira heltzea da. Planak egitea alferrikako da askotan. 2015eko urrian Nepaleko Terai lur eremuan istilu latzak sortu ziren bertako agintariekin. Hainbat hildako izan ziren eta Indiarekin duten muga guztiak itxi zituzten. Zortzi egun itxaron eta gero, Indiako hiribururantz abiatu naiz.

Delhin nago nire bidaia berrantolatu beharrean eta egia esan ez da erabaki erraza. Ezin dut jakin noiz arte irauango duen Terai eta mugen inguruko gatazkak (hilabete batzuk geroago mugak beste hiru hilabetez itxita egon zirela jakin nuen). Horretaz gain, Mianmarrerako bisa lortzeko (nire beste aukera) gutxienez 15 egun itxaron beharko dudala esan didate. Larregi Dheliko infernua itzaroteko.

Nolakoa den patua eta bidaiek izkutatzen dizkiguten ezuste-koak. Nork esan zezakeen bidaia luze honetako azken orduko aldaketek Nepalera eraman beharrean Japoniara eta Thailandiara eramango nindutela, bertako bideetan gurpilekin bidaiari. Nire bidaia planean sekula egon ez ziren lurraldeak. Baina ez ote dira bidaiek gordetzen dituzten misterioak benetan liluratzen gaituztenak? Ez ote da bizia bera abenturarik liluragarriena?

Tso Moriri lakua, Ladakh



MARTIN URRUTIA

BELAUNALDI BERRIKO UZTA

21 urteko Elorriotarra belaunaldi berriko eskalatzailea da, rokodromoetan hasi eta hezi den belaunaldikoa; soka lehenengo aldiz gurasoekin lotu zuen horietakoa. Eskalatzaile indartsu bezain umila, zarata handirik egin gabe gauzak egin ohi dituen kirolaria.

ELORRIOTAR GAZTEAK MAILA GORENEKO BIDEAK EGITEA ERDIETSI DU AZKEN BI URTEETAN

Azken aldian Martinek harkaitzean eskalatzen dihardu gehienbat, eta erdietsitako helburuak ez dira nolana hikoak. Bi urteren buruan, goi mailako hiru bide egin ditu; *Psikoterapia* (9a) Valdegobian, 4x4 (8c+/9a) Atxarteko kobazurin, eta ora-

in gutxi Araotzen *Ménage à Trois* bidea, 9a mailako zailtasuna proposatuz.

Hona hemen bere eskaladaren ikuspegi eta bizipenari buruzko hainbat aburu:

Mugarra · ARGAZKIA: HODEI TORRES



Noiz eta nola hasi zinen eskalatzen?

Sarri egin ohi didaten galdera bat da; zenbat urterekin hasi nintzen edo zenbat urte daramatzadan eskalatzen. Egia esan ez daukat honetarako erantzun zehatzik, soilik bizitza osoa daramadala dakit. Nire gurasoek betidanik izan dute lotura mendiarekin, hainbat jarduera praktikatuz. Haiekin hasi nintzen mendian murgiltzen txikitatik, eta badirudi kirol eskalada izan zela gehien erakarri ninduen jarduera.

Kirola eta aisialdiaz gain, zer esango zenuke eskaintzen dizula eskaladak pertsona moduan?

Kirol moduan erronkekin lotzen dut, ilusioarekin, neure onena lortuz; azken finean sor daitezkeen oztopoak gaindituz. Prozesu hau egunerokotasuneko egoera askoren antzekoa izan daiteke (norberaren ezagutza, pazientzia, errespetua edo arazoekudeaketa).

Aisialdiaren ikuspegitik, askatasuna, gozamena eta lasaitasuna ematen dizkidala uste dut, duen osagai sozial indartsua ahaztu barik, noski.



Untuosa Giuanduja, 8a+/b · ARGAZKIA: RAQUEL MARTINEZ

Zure ibilbidean zehar aipamen edo oroitzapen berezia duen eskaladaren bat? Zergatik?

Erantzun zaila, bat bakarrik aukeratu behar badut. Bat aipatzekotan *El fustigador* bidea aukeratuko nuke; bide hau Margalefen dago. Leku honek eskalatzaile bezala izan dudana garapena argi islatzen duela uste dut, leku berezia da niretzat. Egin nuen egunean zortzigarren mailako bideak eskalatzen hasi berri nintzen, baina oraindik errespetu handia ematen zidaten: batez ere luzeak eta atzera egiten zutenak. Lagun bat probatzen ari zelako hurbildu nintzen. Bidea eskalatzen ari nintzela, bigarren saiakera on baten ondoren, hirugarrenean egitea lortu nuen. Nire bigarren 8a+ mailako bidea zen, egunean bertan egiten nuen lehenengoa, eta gainera horma luze horretan. Neure buruarengan sinesten hasteko gakoa izan zen, kalitate itzeleko bidea izateaz gain.

Zuretzako, eskalatzeko berezia den lekuren bat Euskal Herrian? Eta Euskal Herritik kanpo?

Euskal Herritik kanpo aipatu dudana Margalef. Bertan asko gozatu ohi dut eta nire garapenerako hainbat pausu bizi izan ditut: bertan egin ditut 7c-tik 8b arte bistaz egindako lehen bideak.





Malatesta, 8b. Mugarra · ARGAZKIA: HODEI TORRES

Euskal Herrian, Mugarra oso berezia da niretzat, nahiz eta ez dudan marka pertsonalik hautsi bertan. Han momentu oso politak bizi izan ditut, eta ingurune ikaragarria izateaz gain, lagunez inguratua egon ohi naiz. Kalitatezko bideez gain, xarma berezia duen lekua da, dudarik gabe. Valdegobia edo Araotz bezalako lekuak ere aipatu nahi nituzke, hauetan txikitatik eskalatu izan dudalako eta azken urteotan bide interesgarriak egin ditudalako.

Gaur egun, eskalatzaile asko rokodromoan oso zailduak daude eta beraien helburuak txapelketetan oinarritzen dira, harkaitzean gutxiago eskalatzeko joera dutela esan daiteke. Zein da zure ikuspegia?

Zentzuzkoa deritzot indartsu dauden eskalatzaile asko rokodromoan eskalatzeko joera izatea, kirolari bezala txapelketak direlako haien xede nagusia. Hala ere, kasu batzuetan bi jardueren arteko banaketa handiegia egiten dela uste dut, urte osoan zehar harkaitza ukitzen ez duten eskalatzaileak baitaude. Hainbesteko dedikazioa beharrezkoa al da?

Nik uste mundu mailako eskalatzaile onenetariko askok ere joera hau erakusten dutela; ez dut uste datuak ematea beharrezkoa denik. Eskalatzaile askok harkaitzarekin duten konexio-falta hori (batez ere gazteenen artean) arraroa egiten zait, nik ez dudalako eskalada harkaitzik gabe ulertzen. Bestalde, aberasgarria izango litzateke harkaitzean eskalatzeko ohituak dauden eskalatzaile askok txapelketak begirune handiagoz ikusiko balituzte. Euskal Herrian eta estatu mailan, gazteez gain, ia ez dago lehiakiderik.

Nola ikusten duzu zeure burua urte batzuk barru?

Eskalatzeko, seguru! Neure onena emanez, baina nola egingo dudan ez dakit. Ez daukat helburu zehatzik buruan. Kirol honek eskaintzen digun guztiaz disfrutatzen eta ikasten jarraitzea da nire nahia. Agian, nire jardunaz gain, beste lotura mota batzuk izatea gustatuko litzaidake; entrenatzaile edo

prestakuntza arloan lan egiten. Oraindik eskalatzaile gutxi batzuekin dihardut lan hauek egiten, baina espero dut denboraren poderioz gero eta gehiago izatea.


Identifikatua sentiarazten zaituen esaldi edo lema bat?

Oraintxe bertan ez zait esaldi zehatz bat bururatzen. Agian, hauxe esango nuke: "Utzi pentsatzeari, gehiago sentitu". Andre Agassiren *Open* liburuan irakurri nuen (historiako tennis jokalaria onenetariko) bere neska-lagunak esan ohi ziola (Steffi Graf, hau ere historiako emakumezko tennis jokalaria onenetakoa). Sentitzeari espazioa utziz gero, dena hobeto irteten dela uste dut, duda gutxiagoz, gozamen eta lasaitasun gehiagoz...

Galdetutakoaz gain aipatzea nahiko zenukeen zerbait?

Aurreko erantzunetan nabaritu zen zerbait: buruak kirolean duen garrantzia azpimarratzea gustatuko litzaidake. Duela gutxi arte, entzun ere egiten ez zen gai bat zen. Zorionez, azkenaldian garrantzia hartzen ari da kirolean. Eskaladaren kasuan, bereziki garrantzitsua da, beldurra eta arriskua oso presente baitaude; esango nuke zenbait une gainditzeko ezinbestekoa dela. Askotan, arazo bat dagoenean soilik landu ohi da, baina ez du zertan; indarra entrenatzen dugun moduan, burua ere entrenatu baitezakegu gure maila hobetzeko. Psikologia landuz, askok pentsatzen dutena baino gehiago hobetu daitekeela uste dut.

Psikoterapia, 9a. Valdegobia · ARGAZKIA: JOSEBA HERNANDEZ



XABIER ORMAZABAL MENDI-FESTA

AUTOREAK



Ioritz Gonzalez Lertxundi

Pyrenaica aldizkariaren erredakzio taldeko kidea.



Andoni Ormazabal Aristegi

Xabierren anaia, mendizalea eta eskalatzailea. Honetaz gain, estatu mailan erreferentziazko fisioterapeuta: euskal eskalada selekzioko fisioterapeuta moduan dihardu 15 urte baino gehiago.

Mendizalearen ibilbidea eredutzat hartu eta oroitzapena bizirik mantentzeko, familiak "Xabier Ormazabal mendi-festa" antolatu ohi du

2004. urtean zendu zen Xabier Ormazabal mendizale urretxuarra, 23 urte zituelarik. Cho-oyu mendian. Zuen adinerako, ibilbide oparoa zuen; Ande eta Alpeetan hainbat gailur erdiesteaz gain, Elurretako Lehoinabarra titulu lortu zuen: Bata-sun sobietikoa zenaren bost mendi altuenak igotzeagatik eman ohi den titulu.

Xabierrek Takolo bekaren bitartez laguntza jaso zuen Batasun sobietikoko proiektua gauzatzeko, eta laguntza hari esker ona adierazi ohi zion. Haren mendi-ibilbidea eredutzat hartu eta oroitzapena bizirik mantentzeko, mendizalearen familiak Xabier Ormazabal beka eta mendi festa sortu zuen 2016. urtean, Urretxuko udalaren laguntzaz.

Maiatzaren 28an hirugarren urteurrena ospatu zen, eta Maialen Rojo gasteiztarrantzat izan da beka. Aurten ere, beka ematearekin bat festa antolatu eta gerturaturiko jendeak ikuskizunaz gozatzeko parada izan zuen; kalean atonduriko eskalada-egitura ikusgarrian, txikienek eskalada frogatzeko aukera izan zuten; trebatuenentzat berriz, boulder erronkak izan ziren.

Izen handiko mendizale eta eskalatzaileak izan ziren festan, bai eskalatzen, zein ikusle moduan, eta giro aparta bizi izan zen

Ezker-eskubi: Patxi Usobiaga, Alberto Iñurrategi, Marc Toralles, Eneko cesar, Eneko Pou, Mikel Zabalza, Gorka Karapeto, David Carretero, Iker Pou eta Unai Mendia · ARGAZKIA: POTRONKO



Erronkako partehartzaileak, Andoni Ormazabal erdian dagoela · ARGAZKIA: POTRONKO



Mendi-festara hurbiduriko jendetza · ARGAZKIA: POTRONKO

Ondoren, bazkari herrikoia ospatu ostean, erronka nagusia etorri zen: Euskal Mendi Federazioko selekzioko gazteenak, izen handiko eskalatzaileen aurka aritu ziren (Iker Pou, Patxi Usobiaga, Gorka Karapeto, Esther Cruz, Leire Agirre eta Ane Hernani). Ikusleen artean ere izen handiko mendizale eta eskalatzaileak bildu ziren. Festa giroari ukitu berezia eman zioten Alex Txikonek eta Josean Mulasek, esatari lanak eginez. Amaitzeko, iluntzean, entzute handiko zenbait proiektzio ikusteko aukera izan zen.

Lerro hauen bitartez, antolatzaileek parte hartu zuten erakunde eta hainbat boluntariori eskerrak eman nahi dizkiete, haiei esker ez baitzen posible izango giro ezin hobe ospaturiko festa. Eskerrik asko bihotzez!

MENDI FILM FESTIVAL

15 URTETAKO ESPEDIZIOA

2022ko abenduaren 9tik 18ra egingo dena 15. edizioa izango da



Giro ona Euskalduna Jauregian, 2021ean: Aritz Aranburu, Natxo Gonzalez, Igor Bellido eta Kepa Acero "La Isla de los Tigres"-en estreinaldian

Mendi Film 2008an sortu zenetik, 15 urte bete dira. Edizioak ere hainbat, beraz 2022ko abenduaren 9tik 18ra egingo dena 15.a izango da. Han lehia parte hartuko duten pelikulen zerrenda urrian publikatuko da, eta hortik aurrera jakinaraziko da zein gonbidatu, zuzendari, ekoizle eta atleta protagonista bilduko diren abenduan geurera.


Hala izan da beti, bidea 2008an Gasteizen abiatu zenetik. Lehen lau urte eder haietan gorpuztu zen Euskal Herriko mendi zinema jaialdia, bertako mendizaletasunari erantzunez eta mundu osoko mendi zinematografia berriena eta aktualena geurean aurkezteko gogoz sortu zena. Pyrenaicako aurreko aleetan (284. zenbakia) aipatua dugu haren aurrekari arrakastatsua izan zen Donostiako mendi zine jaialdiaren eredua, 1979tik 1985era bitartekoa. Bada, Gasteizen Mendi Film sortu zenerako, erreferentziak Torello, Trento, Banff edota Diablerets jaialdiak ziren. Jabier Baraiazarra, Eduardo Martinez eta konpainiak, ametsari bide eman zioten, eta Mendi Film Festival jarri zuten martxan.

Europa Jauregia eta Artium museoa Kanpaleku Nagusi bihurtu, eta han abiatu zen jada 15 urte dituen espedizioa. Horma handi bat bailitzan, beste horrenbeste luzetan gogora dezagun:

"PSICOBLOC: UR SAKONETAKO BAKARDADEA" ETA BIDEOGRAFIK

Pelikula honek zabaldu zuen Mendi Filmeko lehen edizioa, Gasteizko Europa Jauregian, 2008ko abenduaren 15ean. Etxeko ekoizpen bat, Bideografik durangarrena. Etxeko protagonistekin: Patxi Usobiaga eta Irati Anda, Balearretako Miquel Rierarekin (gb) batera, "psicoblocaren aita". Bideografik-eko Xabier Zabala, Asier Maeztu, Carlos Iglesias eta Eukeni Arriortua pelikula asko eta onak aurkeztutakoak dira Mendi Filmen: aipatu "Psicobloc"-ez batera, "Slack Line: grabitateari erronka" (2009), "Tamur: Kangchenjungako harribitxia" (2010), "Aizkora hotsak goi mendietan" (2011), "GR-99.

Los colores del camino" (2012), "Parapentea eta ni" (2012), "Imaginador" (2016), eta "Pastoreak" (2018).



Mendi Filmen proiektatutako lehen pelikula: "Psicobloc: ur sakonetako bakardadea" (Bideografik)

EUSKAL EKOIZPENA

Ordur geroztik asko izan dira beren lanak Mendi Filmen aurkeztu dituzten euskal ekoiztetxeak: Marmoka Films, Arena Comunicación, Gariza Films, Morgancra, Einarte Produzioak, Zirriborro, Arteman, Dimegaz, Gattiken, On Produzioak, Avis Producciones, Muxu estudio, Bideolan...



Aro berria 2019tik: BBK Mendi Film Bilbao Bizkaia

EUSKAL ZUZENDARIAK

Eta euskal zuzendari andana murgildu da mendiko zinema-gintzaren munduan, beren lanak Mendi Filmera begira jarritz: Lara Izagirre, Pablo Iraburu, Migueltxo Molina, Marga Gutierrez, Jose Larraza, Aner Etxebarria, Pablo Vidal, Ruben Crespo, Igor Bellido, Jon Herranz, Mattin Zeberio, Pablo Dendaluze, Jon Goikoetxea, Iker Larrañaga, Iñaki Peña, Egoi Markaida, Iker Elorrieta, Iñigo Grasset, Alex Areizaga, Romain Jamet, Tamara Lucarini, Carlos Rodriguez, Fredi Paia, Aitor Gisasola, Gotzon Arribas, Santi Ron, Mikel Peña...

EUSKAL PROTAGONISTAK

Zine-zuzendari lanetan sartutako euskal mendizale eta atletak ere dezente dira: Mikel Sarasola, Alex Txikon, Jose Ramon Agirre "Marron", Adolfo Madinabeitia, Josu Bereziartua, Luis Arrieta, Janire Etxabe, Mikel eta Iñaki Urresti, Xanti Ugarte, Txus Ruiz de Erentxun... Pelikuletako protagonista bezala ere, izen ezagun asko. Alpinistak: Iñaki Ochoa de Olza (gb), Alberto Zerain (gb), Alberto Iñurrategi, Juan Vallejo, Mikel Zabalza, Edurne Pasaban, Juanito Oiarzabal, Juanjo Sansebastian edo Felipe Uriarte. Eskalatzailak: Ekaitz Maiz, Gorka Karapeto, Arkaitz Yurrita, Unai Mendia, Eneko Cesar, Andoni Ormazabal, Itziar Zabala, Mikel Linazisoro edo Esparta anaiak. Eskiatzailak: Lucas Eguibar, Iraitz Ezkergain edo Jurek Sienkiewicz. Mendi lasterkariak: Silvia Trigueros, Iker Karrera, Oihana Azkorbebeitia edo Irene Sarriugarte. Piraguitak: Aitor Goikoetxea, Xabier Olano, Fermin Perez, edo Antxon Arza (gb). Surfari eta abenturazaleak: Kepa Acero, Aritz Aranburu, Natxo Gonzalez edo Garazi Sanchez. Bidaia-riak: Josu Iztueta, Julio Villar edo Eneko Etxebarrieta. Aloña Mendi taldeko espeleologoak. Eñaut Izagirre eta Ibai Rico glaziologo eta geografoak.



10 edizioko Women at the Top panel talka: Jabier Baraiazarra, Katie Ives, Bernadette McDonald, Catherine Destivelle, Lynn Hill, Josune Bereziartu, Eduardo Martinez eta Edurne Pasaban



Pou Aniaekin hizketaldia "A4 in Free" aurkezteko

POU ANIAIAK

Aparteko kapitulua da Eneko eta Iker Pou anaiena. Eskalatazaila eta alpinista gasteiztarrek, lotura estua izan dute beti Mendi Filmekin, honen aldeko apustu irmoa egin izan dute beti. Bederatzi pelikula estreinatu dituzte bertan, atera kontuak! 2008an "7 parea 7 kontinente"-rekin hasi, eta 2018ko "Pim Pam Pou" arte.

VITORIA-GASTEIZ

2008tik 2011ra, Gasteiz izan zen Mendi zinemagintzaren euskal hiriburua. Bertako negu hotzetan beroa eskaini zuen ikusleagoak lehen ediziotik, aretoak betez. Nazioarteko izar handiak hasi ziren biltzen jaialdira: Dean Potter (gb), Sean Leary (gb), Nicolas Favresse, Sean Villanueva, Karina Hollekim, Erhard Loretan (gb), Leo Houlding, Ines Papert, Gerlinde Kaltenbrunner, Ralf Dujmovits, Chris Sharma...

BERNADETTE MCDONALD

2010ean egin zuen lehen kidea Mendi Filmen idazle kanadarak, artean Banff Film Festival-eko zuzendaritzako kide zela. Birritan epaimahaikide izana da Mendi Filmen, baita hizlari eta erakusketa aurkezle ere. Nazioarteko izaera eta potentziala aitortu zizkion euskal jaialdiari.

IAMF

2011ean Mendi zinemaldien nazioarteko elkargoan sartu zen Mendi Film Festival, International Alliance for Mountain Film delakoan. Gaur egun 28 kide ditu, 5 kontinentetako 20 herrialde ordezkaturik. Eta 2018az geroztik, elkargoaren gidaritzan dihardu Jabier Baraiazarrak, Mendi Filmeko zuzendariak.

BILBO

2012an egin zuen Gasteiztik Bilborako aldaketa Mendi Filmek. Esker onez, bai Araban jaialdiari lau urteko sustengua eman zioten erakundeekiko eta ikusleekiko, eta baita Bizkaian abegikor agertu zirenekiko. 10. edizio ospatu dira jada Bilbon. Sala BBK, Golem zinemak, Euskalduna Jauregia, Bizkaia Aretoa, Euskal Museoa, Itsasmuseoa, Ondare eta Rekalde aretoak, Zabalgune eraikina, Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsua, Club Deportivo Bilbao, Alde Zaharra... Mendiko arnasa abenduro berritzen da Bilbon.

JIMMY CHIN

2013an Jimmy Chin-ek bere argazkilari ibilbideko lanekin erakusketa aurkeztu zuen Metro Bilbaon. 2015ean berak zuzendutako "Meru" filma proiektatu zen Mendi Filmen 8. edizioko Hasiera Ekitaldian, Euskalduna Jauregian. Eta 2018an, "Free Solo" programatu zen Mendi Filmen, handik urtebetera, nazioarteko sari sonatuak irabazi zituen mendiko pelikula: Akademiaren Oscar bat, BAFTA sari bat eta 7 Emmy sari. Pisuzko pertsonaia bat, Mendi Filmeri lotua.

10. URTEURRENA

Mendi Filmen 2017ko edizioak, 10.ak, emakume indarra aldarrikatu zuen: Catherine Destivelle, Lynn Hill, Josune Bereziartu eta Edurne Pasaban Sala BBK-ko agertoki distiratsuan elkarrekin; Jennifer Peedom zuzendariaren "Mountain" Euskalduna



Iñigo Grasset argazkilaria "Circle of the Sun" film laburra aurkezten Josune Velez de Mendizabal aurkezlearekin



Mikel Sarasola piraguista eta zine zuzendariaren lehen agerraldia Mendi Filmen, 2014an, "Caminos de Agua" pelikularekin

Jauregiko Hasiera Ekitaldian; Bernadette McDonald eta Katie Ives mahai inguruak gidatzen, eta haiek bezala hainbat urtetan Pyrenaicako arduraduna izan den Luisa Alonso-Cires edo Lara Izagirre zinegilea ere bai; Jin Jeon zuzendari hego-ko-rearraren "Becoming who I was" filmak Sari Nagusia irabazi zuen; eta "Aurrera" film laburrarekin Irene Sarrionandia mendi lasterkaria ezagutarazi zen jendartean.

ARO BERRIA: BBK MENDI FILM BILBAO BIZKAIA

2019an Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala eta BBK Fundazioarekin lau urterako lankidetzak akordioa sinatu zuen Mendi Filmek. Egonkortasun eta ziurtasun bide bat. Eta baita izen aldaketa bat ere: Bilbao Mendi Film Festival zena, BBK Mendi Film Bilbao Bizkaia da harrez geroztik. Izen nagusi hauen altzoan, berau posible egiten duten babesle guztiei, bihoakie esker onik zintzoena.

PANDEMIA

Covid-19aren agerraldiak eraginda 2020ko eta 2021eko edizioak aurrera atera izana sekulako lorpena izan zen. Musuko, desinfektatzaile, distantzia sozial eta udal muga perimetrala eta guzti egin zen 13. edizioa. Artean musukoak erantzi gabe, baina jatorri muga gabeko bilgunea izan zen iazkoa, 14. edizioa. Bi edizioetako kartelak, CVCEPHOTO lehiaketako sarrietatik hautatuak, sinbolismoz beteak izan ziren: 2020an Sandi Bertoncelj argazkilararen "Into the Light" eta Jan Zahularen "The edge of guillotine".

ERAKUSKETAK

Edizio guztiek izan dituzte erakusketa seinatuak: argazkiak, komikiak eta liburuak, mendi materiala, musika, margo-lanak, fularrak eta zapiak... CVCEPHOTO lehiaketako 7 edizioetako argazki sarituek beste horrenbeste urtetan izan dute isla Metro Bilbaoko geltokietan. Jim Herrington argazkilaria prestigioitsuak historiako mendizale handien erretratuak ekarri

zituena. Santi Yaniz eta bere magia eta irudimena maiz izan dira erakusgai argazkietan. EMMOA-ren eskutik euskal mendizaletasunaren historia kontatu da Bilboko Alde Zaharreko erakusleihoetan. Italiako Museo della Montagnaren fularren eta disko-azalen erakusketek ere oihartzun handia izan zuten. Eta SUA argitaletxearekin batera Mendi Film labean sortutako "Everest: Herri oso bat gailurrean" eta "Inurrategi anaiak: mendiari bihotz emanak" komikiek ere izan dute erakusleioa.



Itziar Zabala "Amagana" pelikulako protagonista bigarren Mendi Film pandemikoan, 2021ean

MENDI TOUR

Mendi Filmeko pelikula onenen mostra ibiltaria, abenduko erakustaldiaren ostean, hurrengo urte osorako soka ematen duena. Aurten 50etik gora hiri eta herritan 90 bat zine-saio aurkeztuko ditu urtarrilean hasi eta azarora bitartean. Urte osoan mendiko zinemas pantaila handian eta lagunartean gozatzeko aukera da Mendi Filmek eskaintzen duena. Mendizaletasunaren bilgune da. Eta horrela, 15 urte jada.

Aitor Elduairen (Mendi Film komunikazioa)



Chris Sharma eskalatzailea Mendi Film 2. edizioan, Gasteizko Europa Jauregian

NOTICIAS EMMOA ALBISTEAK

TOUR DE MENDIAN GORA

La exposición Mendian Gora, que se celebró en los escaparates de Gasteiz en Navidades de 2021 y en Bilbao en 2022, ha comenzado su recorrido itinerante por todo el país.

Una versión de menor tamaño de los paneles rotará por los parketxes de los Parques Naturales de Álava. Ha empezado en abril en Sarriena, en el PN del Gorbeia y luego irá a Valderejo y a Izki.

En cuanto a la colección de tamaño grande, su primera exhibición fue en Legazpi, en febrero y marzo de este año. Siguió su recorrido con una jornada de aproximación de la UPV al mundo de la montaña, el 10 de mayo, en el campus de Álava. Participaron por la mañana profesores de la universidad, y en la mesa redonda de la tarde: Juanjo San Sebastián, Javo Alonso Aldama, Edurne Pasaban y Alex Txikon. La exposición se pudo visitar hasta el 3 de junio.

